



Frut-Arte

FITXA
11

Helburuak

- FRUTA AHORAKINA HANDITZEA, LAN ARTISTIKOEN KONTSUMOAREKIN GOZATUZ.
- IKASLEAK FRUTA-MOTA GUZTIETARA OHITZEA.

Ikastaroak eta arloak/Eremuak/Materiak _____

Lehen Hezkuntza eta DBH.

Gaitasun artistikoa.

- Hizkuntza plastikoaren eta bisualaren erabilera.

Gomendatutako adina _____

6-16 urteko ikasleak.

Jardueraren deskribapena/Metodologia _____

Mahai baten gainean hainbat fruta jarriko ditugu, eta marrazki bat edo irudi bat sortuz euren sormena gara dezaten proposatuko diegu ikasleei. Laguntzeko, ideia batzuk emango dizkiegu, baina euren ideien eta ekimenen garapena sustatuko dugu. Argazki batzuk egingo ditugu, eta horma-irudi batean jarriko ditugu, jantokian.

Azkenean, artelana jango dute.

Ikasle guztientzako irudi bakar batean zentratuz ere egin dezakegu jarduera hau. Fruten erabilera baldintza dezakegu (fruta bat baino ez; 2, 3,... 6 fruta baino gehiago; fruta hezurdunak, fruta laranja...), sormena areagotzeko.

Jarduera hau postre modura egin daiteke, edo ohiko postretik aparte.

Bozketa orokor bidez, parte-hartzaile talde bakoitzean irabazle bat aukeratzea proposatzen da, eta amaieran jakinaraztea, egindako lanak kontsumitzeko ospakizunean.

Lan irabazleei argazkiak aterako zaizkie eta klaseetan jarriko dira ikusgai.

Aniztasunari erantzuteko, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak (HLBP) dituzten ikasleentzat beharrezko giza baliabideak edukiko dira (PT, hezitzailea, logopeda), eta irakasleek, tutoreek edo ikasle laguntzaileek aktiboki lagunduko diete, premia zehatzen arabera.

Jarduera egin aurretik, ikasleen elikadura-alergiak eta kontaktuzkoak kontsultatuko dira.



Egutegi eredua/Iraupena _____

45 minutuko iraupena.

Egun bat hilean.

Aukeratu
osasuntsu jatea
Zu irabazle!



Elige
comer sano
¡Tú ganas!

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD



Jarduera-eremua

Eskolako jangela

Ikasgela

Etxea

Beste bat

Beharrezko baliabideak

Giza baliabideak:

Monitore bat DBHko 20 hurreko.

Monitore bat Lehen Hezkuntzako 10 hurreko.

Materialak:

Hainbat fruta mota.

Labanak.

Aho-zapiak, platerak, zotzak.

Argazki-kamera.

Paper zerrenda bat, murala egiteko.

Ebaluazio-metodoa/Adierazleak

Ikaskuntza eta dietan frutak eta barazkiak sartzeko jarrera edukiko dira kontuan.

Ebaluazio jarraiaren bidez, ondorengo hau baloratuko da:

- Ikasleek euren lan artistikoa egin duten.
- Ikasleek lan artistikoko frutak jan dituzten.

Informazio gehiagorako (aurretiazko esperientziak, material lagungarria, bibliografia...)—

Material lagungarria:

- <https://www.youtube.com/watch?v=i4bk22uT9U8>
- <https://www.pinterest.es/cheixpc777/frutarte/?lp=true>

Bibliografia:

- Folkvord F, Anschütz DJ, Buijzen M, Valkenburg PM. The effect of playing advergames that promote energy-dense snacks or fruit on actual food intake among children. *Am J Clin Nutr.* 2013; 97(2):239-45.
- Folkvord F, Anastasiadou DT, Anschütz D. Memorizing fruit: The effect of a fruit memory-game on children's fruit intake. *Prev Med Rep.* 2016; 10; 5:106-111.
- Park BK, Cho MS. Taste education reduces food neophobia and increases willingness to try novel foods in school children. *Nutr Res Pract.* 2016, 10 (2):221-8.
<https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/27087907>
- Reverdy C, Chesnel F, Schlich P, Köster EP, Lange C. Effect of sensory education on willingness to taste novel food in children. *Appetite.* 2008; 51(1):156-65.
<https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/18342395>
- Mustonen S, Tuorila H. Sensory education decreases food neophobia score and encourages trying unfamiliar foods in 8–12-year-old children. *Food Qual Pref.* 2010; 21(4):353-360.

Adibideak:

